

KOSTUEN EGITURA

Enpresa batek produzitzeko orduan gastuak ditu, hauek gabe materialik, langilerik edo produktua sortzeko lekurik ez genukeelako edukiko. Bi kostu mota ditugu, alde batetik, **kostu finkoak**: Hilero berdina ordaintzen ditugun gastuak direla. Honen adibidea dira: Alokairua, langileen soldatak, garraioa, wifia... Beste aldetik, **kostu aldakorak**: Hauek hilean ekoiztakoaren arabera aldatzen diren gastuak dira. Adibidez, gasa, ura, elektrizitatea...



Honetaz gain, gure etekinaren %20a ezusteko gastuetarako erreserbatuko dugu. Nahitaezkoa iruditzen baitzaigu azken orduko ustekabe bat edo istripu bat gertatu eskero honetarako dirua aurreztua edukitzea. Hau da, makina bat apurtzea edo hornitzaileek ordurako materialik ez ekartzea.

Azkenik, enpresa ondo joango balitz eta dirua aurrezturik edukiko bagenu, inbertsioak egiteko erabiliko genuke. Modu honetan enpresa handitzen joango da horrela merkatuan gure lekua eginez. Honetarako, langile gehiago kontratu, makinak erosi edo lokal handiago bat alokatuko genuke. Hala ere, posibilitate bat dago enpresa ondo ez joateko eta etekinak baxuak izateko, hori gertatuko balitz enpresaren gastuak moztu egin beharko genituzke.

**Gutxi gora beherako aurreikuspena*

KOSTU FINKOAK	KANTITATEA	GUZTIRA
Alokairua	1	1500€
Langileen soldatak	4	10.000€ (2.500€/pertsonako)
Garraioa (lurrina garraiatzeko)		5.000€
WIFI-a		52€
GUZTIRA		11.552€

KOSTU ALDAKORRAK	KANTITATEA	GUZTIRA
Gasa	Hileko produkzioaren arabera	2000 €/L
Ura	Hileko produkzioaren arabera	(0,07€/L) 8750€
Elektrizitatea (energia labeak funtzionatzeko)	Hileko produkzioaren arabera	(0,10€ MW/h) 12500€

Lurrina	Hileko produkzioaren arabera	(55€/L) 423.500€
Kristala (lehen gaia)	Hileko produkzioaren arabera	(7,50€/Kg) 12.000€
GUZTIRA		458.750€

Guztira			470.302€
---------	--	--	----------